



Aurretiatzko genero eraginaren txostena

Foru Arau aurreproiektua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2019rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen

1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.



2. Arau aldaketak

2019ko Aurrekontuen elaborazioa Diputatuen Kontseiluak onartutako aurrekontu esparruaren barruan egin da; bertan ezartzen dira Gipuzkoako sektore publikorako epe luzeko helburuak. Eta gainera, emaitzetara bideratutako aurrekontu baten baldintzak betetzen ditu.

Emaitzetara bideratzean, aurrekontu programek adierazleak helburuekin lotzen dituzte, eta azken horiek ekintzekin eta baliabideekin. Horrenbestez, politika publikoen multzo osoa gauzatzeko oinarrizko tresna izateaz gain, aurrekontuak plangintza eta ebaluazio sistema ere badira, aurrekontuko baliabideak lortzea espero diren emaitzekin lotzen baititu, betiere efikazia, efizientzia eta gardentasuna hobetze aldera.

Ikuspuntu horrek aukera ematen du zeharkako politikak elkarrekin uztartzeko (genero berdintasuna, hizkuntza berdintasuna eta partaidetza), eta programek politika horien garapenean duten eragina adierazten du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokor hauen helburua baliabide publikoen kudeaketa finantzario egokia lortzea da, gastu publikoaren banaketan ahalik eta efizientziarik handiena ziurtatze aldera.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, aurrekontu osoa % 5,31 hazi da, aurrekontu propioa %2,22 eta Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa, aldiz, %6,61 termino homogeneoetan.



Gastu politiken lehentasuna izango da lurraldeko ekonomia eta gizartea dinamizatzea. Alde batetik, apustua egingo da Ekonomia Berpizteko Plana bultzatu eta etorkizuneko proiektu estrategikoen alde. Bestetik, areagotu egingo dira gizarte politiketara zuzendutako baliabideak.

Horrez gain, gizarte gastuetarako bideratutako kredituak zabalgarritzat hartu dira, kontuan izanik gerta daitekeela haien zuzkidura nahikoa ez izatea ekitaldian zehar agertzen diren beharrei aurre egiteko, betiere azpimarratuz borondate politikoa dela kreditu horiek zuzkitzea aurrekontu beharrak estali arte.

Baina, 2019ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko erregulazio guzti horrez gain, Hirugarren Xedapen Gehigarriak eta Amaierako Lehen Xedapenak aldaketa garrantzitsuak sartzen dituzte 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan aplikagarria den araudian (12/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa) eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aplikagarria den araudian (3/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa).

Zehazki, proposatzen diren aldaketa nagusiak honakoak dira:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

2018. urtean indarrean dauden balio katastralak %1,5ean eguneratzen dira.



2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

Zergaren zenbateko nominal batzuek %1,5ean eguneratzen dira.

- Oinarri orokorraren tarifa (75.1 art.)

Indarrean dagoen tarifa

oinarria	kuota	gainerakoa	%
0	0	15.790	23,0%
15.790	3.631,70	15.790	28,0%
31.580	8.052,90	15.790	35,0%
47.370	13.579,40	20.290	40,0%
67.660	21.695,40	26.060	45,0%
93.720	33.422,40	31.230	46,0%
124.950	47.788,20	57.240	47,0%
182.190	74.691,00		49,0%

Proposamena

oinarria	kuota	gainerakoa	%
0	0	16.030	23,0%
16.030	3.686,90	16.030	28,0%
32.060	8.175,30	16.030	35,0%
48.090	13.785,80	20.600	40,0%
68.690	22.025,80	26.460	45,0%
95.150	33.932,80	31.700	46,0%
126.850	48.514,80	58.100	47,0%
184.950	75.821,80		49,0%

- Beste kontzeptu batzuk

	Indarrean	proposamena
Batera tributatzeagatik murrizpena (73 art.)		
Biparentala	4.282	4.347
Monoparentala	3.720	3.776
Kuota orokorraren murrizpena (77 art.)	1.410	1.432
Kenkaria ondorengoengatik (79.1 eta-2 art.)		
1	594	603
2	735	747
3	1.242	1.261
4	1.467	1.490
5 edo gehiago	1.917	1.946
6 urtetik beherakoa	341	347
Kenkaria aurrekoengatik (81 art.)	284	289
Kenkaria adinagatik (83 art.)		
65 urtetik gorakoak	340	346
75 urtetik gorakoak	622	632

euroak



3. Genero eragina

3.1. Genero egokitasuna

Proiektu honen barruan nabarmen bi arau aldaketa mota bereizten dira. Alde batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2019. urteko Aurrekontu Orokorren onarpenari lotutako araudia. Beste alde batetik, OHZn eta PFEZn proposatutako aldaketak.

Lehen kasuan, proiektuaren amaierako hartzaileak lurraldeko biztanle guztiak dira; aldiz, bigarren aldaketek eragiten die OHZ eta PFEZ aitortzaileei.

Hortaz:

- amaierako talde hartzailea pertsona fisikoak izanik,
- eta xedapen normatiboak eragina izanda emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan,

Ondorioztatu behar da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

3.2. Genero eraginaren balorazioa

3.2.1. Hasierako egoera

Azken urteetan Gipuzkoako gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko erreferentziazko adierazleen bilakaerak, oro har, ibilbide positiboa izan du, emakumezkoen jatorrizko egoera okerragotik abiatuta, beti ere. Hala ere, oraindik ere urrats asko eman behar dira benetako egoera parekidea lortzeko eta mendeetako bazterketa egoeraren ondorioak gainditzeko. Horrez gain,



azken urteotako krisi ekonomikoaren ondorioz, gizartearen sektore guztiak kaltetuak izaten ari dira, langabezia areagotuz, ongizate estatuko zenbait zerbitzuetan murrizketak ezarriz, zeharkako zergak handituz... Gainera, errenta maila baxuko eta babesik gabeko pertsonengan eragina askoz kaltegarriagoa izaten ari da, jakin dakigularik, pobreziaren tasa neurtzeko erabiltzen dugun adierazleak emakume eta gizonen arteko arraila altua erakusten duela.

EUSTATEk egiten duen "Errenta pertsonal eta familiarra"-ren datuen arabera, 2015ean Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 15.852 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 25.802 eurokoa (%38,6ko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %40,4koa da (9.113 euro eta 15.302 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murrizagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %24,2ak 1.500 eurotik behera jasotzen ditu, eta gizonezkoetan talde hori % 13,6koa da. Emakumeen erdia baino gehiagok (%51,3) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %28,6 diren bitartean.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoen baino. Horrela, eta EUSTATEN Biztanleria Jardueraren Araberako datuetan ikusten da 2017an emakumeen (16-64 urte) okupazio tasa %63,1ekoa izan zela Gipuzkoan, gizonezkoena %69,9koa izan zen bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, emakumeen langabezia tasa 2017an %9,7koa izan zen, gizonena %8,2a izan zen bitartean.



Era berean, emakumeak dira nagusi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (SBE) titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2017ko datuen arabera, SBEa jasotzen duten pertsonen %55,8 emakumeak dira Gipuzkoan.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Gipuzkoako pobrezia eta bazterkeriaren inkesta, 2014" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekarietatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan. Horrela, pobrezia iraunkorraren maila bereziki altua da emakumezkoak daramatzaten etxeetan bizi direnen kasuan (%12,8), gizonezkoen daramatzaten %7,8ren aldean.

Pobrezia eta bazterketa arriskua neurtzen duen AROPE tasaren arabera (diru-sarrera apalak, eskasia material larria eta lan intentsitate apala) emakumezkoen %21,5a dago egoera horietako bat jota egoteko arriskuan, gizonezkoen %17,5aren aldean. Eta emakumezkoak buru dituzten etxeetan, bertan bizi diren %29,4k dute arrisku hori, gizonezkoak buru direnean portzentaje hori %16,6ra jaisten den bitartean.

OHZri dagokionez, 2018ko datuen arabera hasierako egoera honakoa da:

Jabea	Kopurua		Balio katastrala		Ordaintzeko kuota	
Pertsona juridikoa	11.053	2,7	12.854.179.444	20,4	30.241.303	22,6
Pertsona fisikoa	404.018	97,3	50.202.622.126	79,6	103.860.896	77,4
Guztira	415.071	100,0	63.056.801.570	100,0	134.102.199	100,0

eurotan



- Ondasun higiezin 415.071 jaçe daude, eta horietatik %2,7% pertsona juridikoak dira, eta beste %97,3% pertsona fisikoak.
- Pertsona juridikoak dituzten hiri ondasunen balio katastrala guztira 12.854 milioi eurotako da (guztiaren %20,4%); eta pertsona fisikoek 50.203 milioi eurotako (guztiaren %79,6) balio katastrala duten ondasunen jabeak dira.
- OHZgatik ordaindu beharreko kuota osoaren (134 milioi euro) %22,6a (30 milioi euro) pertsona juridikoek ordaintzen dute; eta pertsona fisikoek %77,4a (104 milioi euro).

Zenbateko horien emakumeen eta gizonen arteko banaketa honako da:

Jabea	Kopurua		Balio katastrala		Ordaintzeko kuota	
Emakumea	194.813	48,2	23.622.075.859	47,1	48.422.407	46,6
Gizona	209.205	51,8	26.580.546.268	52,9	55.438.489	53,4
Guztira	404.018	100,0	50.202.622.126	100,0	103.860.896	100,0

eurotan

- 404.018 pertsona fisiko jabeetatik %48,2a emakumezkoa da eta %51,8a gizonezkoa.
- Emakumezkoek pertsona fisikoek duten balio katastral osoaren %47,1a metatzen dute eta gizonekoek beste %52,9a.
- OHZgatik emakumezkoek 48 milioi euro ordaintzen dute (guztiaren %46,6) eta gizonezkoek 55 milioi euro (guztiaren %53,4).



PFEZren hasierako egoerari buruz, 2018an aurkeztutako aitortpenen (2017ko ekitaldi fiskalari dagozkionak) datu nagusiak honakoak dira:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Aitortpen kopurua	378.468	164.210	214.258	43,4	56,6
Oinarri likidagarria	9.585.626.512	3.604.994.972	5.980.631.539	37,6	62,4
Kuota likidoa	1.742.703.070	597.124.985	1.145.578.084	34,3	65,7

eurotan

Guztira 378.468 aitortpen aurkeztu dira, eta horietatik %56,6 gizonetzkoenak dira eta beste %43,4a emakumezkoenak. Baterako aitortpenen kasuan, eta aitortzaile bat baino gehiago dagoenean, aitortpen osoari oinarri ezargarran zenbateko handiena duen pertsonaren sexua eman zaio.

Guztira aitortutako oinarri likidagarria 9.586 milioi eurotako ia izan da, eta horietatik %62,4a gizonetzkoek aitortu dute, eta %37,6a emakumezkoek. Eta zergarengatik ordaindutako zenbatekoa osoa 1.743 milioi eurotako ia izan da, 1.146 milioi (%65,7) gizonek ordaindu dute eta 597 milioi (%34,3) emakumezkoek.

Proiektu honetan aldatu nahi diren zerga kontzeptuei dagokionez, 2017ko aitortpenetan erakusten duten banaketa honakoa da:

Kontzeptua	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Batera tributatzegatik murrizp.	303.186.755	59.513.514	243.673.241	19,6	80,4
Kuota orokorraren murrizpena	513.557.518	222.129.738	291.427.779	43,3	56,7
Kenkaria: ondorengoak	110.418.720	44.930.658	65.488.062	40,7	59,3
Kenkaria: aurrekoak	515.662	220.852	294.810	42,8	57,2
Kenkaria: ondorengoei urteko or.	1.647.074	107.853	1.539.220	6,5	93,5
Kenkaria: adina	41.307.936	15.080.222	26.227.714	36,5	63,5

eurotan



- Batera tributatzegatik dagoen murrizpenaren %80,4a gizonekoek aplikatzen dute.
- Kuota osoaren murrizpenean gizonekoek %56,7a metatzen dute.
- Ondorengoengatik dagoen kenkariaren %59,3a gizonekoek aplikatzen dute.
- Aurrekoengatik dagoen kenkariaren %57,2a gizonekoek metatzen dute.
- Ondorengo urteko mantenua ordaintzegatik dagoen kenkariaren gehiengo nagusia (%93,5) gizonekoek aplikatzen dute.
- Adinagatik dagoen kenkariaren %63,5a gizonekoek metatzen dute.

3.2.2 Aztertutako neurriak

3.2.2.1 Aurrekontu Orokorrei buruzko araudia

2019ko aurrekontu proiektu honetako programak genero ikuspegitik aztertu dira. Programa horiek sailkatuta daude eragin handikoak, eragin ertainekoak eta eragin txikikoak bezala.

Azterketa eragin handiko eta ertainetara mugatu da. Azkenean, 42 programa aztertu dira, aurrekontu propio osoaren %69,7. Horrela, aurrekontu propio osoa 820 milioi eurokoa bada, aztertutako 42 programen zenbatekoa 571 milioikoa da. Horietatik, 21 programa garrantzi handikoak dira generoaren ikuspegitik eta kudeatutako gastua 408 milioikoa da (%49,9). Bestalde, garrantzi ertaina duten beste 21 programak kudeatutako gastua 163 milioikoa da (%19,8).

Zenbateko horiek ikusita, esan dezakegu, programa horiek ondo ordezkatzeko dituztela foru aldunditik bultzatutako politika publikoak.



3.2.2.2 Ondare Higiezinaren gaineko Zergari buruzko araudia

OHZren 2018ko ekitaldi fiskaleko erroldako datuetatik abiatuta, aurreikusia da proposatutako aldaketak 2,1 milioi eurotako eragin positiboa izango duela zerga-bilketan.

Zenbateko horretatik, %53,4 gizonezkoiei dagokio, eta ordaintzeko zenbatekoa 1,1 milioi eurotan handituko zaie. Emakumezkoen kasuan, ordaintzeko kuotaren igoera 0,9 milioi eurotako izango da (guztiaren %46,6%).

	Eragina zerga-bilketan				
	euroak			%	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Guztira	2.109.730	982.571	1.127.160	46,6	53,4

3.2.2.3 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudia

2017ko ekitaldi fiskaleko aitortzenetik abiatuta (2018an aurkeztuak) aurreikusi da proposatutako aldaketek 16,9 milioi eurotako eragin negatiboa izango dutela zerga-bilketan.

Zenbateko oso horretatik, %65,0a gizonezkoiei dagokio, eta ondorioz, zergarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa 11,0 milioi eurotan jaitsiko zaie. Emakumezkoen kasuan, ordaintzeko zenbatekoaren jaitsiera 5,9 milioi eurotako da (guztiaren %35,0).



Kontzeptua	Eragina zerga-bilketan				
	Euroak			%	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Batera tributatzeagatik murrizpena	-1.092.836	-179.321	-913.514	16,4	83,6
Tarifa	-7.218.708	-2.626.664	-4.592.044	36,4	63,6
Kuota orokorraren murrizpena	-6.825.471	-2.483.577	-4.341.894	36,4	63,6
Kenkaria: ondorengoak	-1.431.049	-536.452	-894.597	37,5	62,5
Kenkaria: aurrekoak	-6.049	-2.464	-3.585	40,7	59,3
Kenkaria: ondorengoei urteko orda.	-21.276	-756	-20.520	3,6	96,4
Kenkaria: adina	-379.556	-107.869	-271.687	28,4	71,6
GUZTIRA	-16.974.944	-5.937.103	-11.037.841	35,0	65,0

Zerga-bilketaren eragina kontzeptuka aztertuta, honakoa nabarmentzen da:

- Batera tributatzeagatik dagoen murrizpenaren ondorioz emandako jaitsieraren %83,6a gizonezkoek eramaten dute.
- Ondorengoei urteko ordainketak egiteagatik dagoen kenkariaren ondorioz izandako jaitsieraren ia-ia guztia gizonezkoek eramaten dute.

3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

Alde balelik, eta aurrekontu araudiari dagokionez, horien eragina genero aldetik zehaztasun handiagoarekin egiten da proiektuarekin batera doan txostenean: "2019ko Aurrekontuak generoaren ikuspegitik duen eraginaren azterketa – Txosten exekutiboa". Dударik gabe, aurrekontu hauek gipuzkoarron bizi-kalitatean eragin handia dute; eta beraien xedeetako bat da generoak sor ditzakeen desorekak ahalik eta gehien murriztea. Helburu hori zein neurritan lortuko duen eta bere egokitasun maila ondoren aztertu beharko da. Baina dudarik gabe, aurrekontu hauek baldintzak eta neurriak ipintzen dituzte, hori horrela izateko.



OHZren zerga araudian proposatutako neurriei buruz, emakumezkoek ordaintzeko zenbatekoaren igoeraren %46,6a ordaintzen dute, eta kuota originalaren portzentajea ere %46,6koa da. Halaber, gizonetzkoek ordaintzeko kuotaren igoeraren %53,4a ordaintzen dute, eta beraien pisua ere ordaintzeko kuota osoaren %53,4 da.

Beraz, badirudi proposatutako neurriek ez dutela aldaketa nabarmenik sartzen emakume eta gizonen arteko zergaren banaketan.

PFEZren zerga araudian proposatutako neurriei buruz, emakumezkoek ordaintzeko zenbatekoaren jaitsieraren %35,0a eramaten dute, eta kuota likidoan (zergarengatik ordaindu beharrekoa) duten portzentajea %34,3 da. Gizonetzkoek jaitsieraren %65,0a eramaten dute, eta beraien portzentajea zergarengatik ordaindu beharreko zenbatekoan %65,7 da.

Beraz, badirudi proposatutako neurriek ez dutela aldaketa nabarmenik sartzen emakume eta gizonen arteko zergaren banaketan.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

	Emakumeak	Gizonak
Kuota likido originala	34,3	65,7
Zerga-bilketa eraginaren banaketa	35,0	65,0

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu egin dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak. Alde batetik, Ekonomi Ituanren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorra ezarritako



terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak. Eta bestalde, ordenamendu juridikoko beste arau batzuetan espresuki zehaztuta daudelako errespetatu behar direnak.

Donostia, 2018ko urriaren 19a

10
XAW

Sin.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA